

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ENTZIAKO PARTZUERGO OROKORRA

#### Entziako Partzuergoko lehendakariaren eginkizunak lehen lehendakariordeari aldi baterako eskuordetzea

Entziako Partzuergoko lehendakariak, 2024ko uztailaren 23ko 21/2024 Dekretuaren bidez, ebazpen hau eman du:

2024ko uztailaren 24tik abuztuaren 2ra bitartean (biak barne), Aguraingo udalerritik kanpo egongo naiz.

Eta ikusita zer xedatzen duten Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikulua, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 44.1, 44.2, 47.1, 47.2 eta 48. artikuluek eta Entziako Partzuergoaren Estatutuen 13. artikulua hau,

#### EBATZI DUT

I. Lucas Mugica Foronda lehen lehendakariordeari eskuordetzea Entziako Partzuergoko lehendakariaren eskumenak, nire eginkizunetan ordezka nazan Aguraingo udalerrian egongo ez naizen tarte honetan: 2024ko uztailaren 24tik abuztuaren 2ra arte, biak barne.

II. Dekretu hau Lucas Mugica Forondari jakinaraztea.

III. Ebazpen hau ALHAOn argitaraztea, eta Entziako Partzuergoko Batzar Nagusiari jakinaraztea, eginten duen lehenengo bilkuran.

Agurain, 2024ko uztailaren 23a

*Lehendakaria*

**RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR**